

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua jende talde zabal bati dago zuzenduta, hau da, edozein pertsona kontsumitu dezake gure produktua. Hala ere, oso produktu erakargarriak dira kolektibo batzuentzat bereziki, animalistentzat eta ekologistentzat gehienbat. Gainera gizarte erantzukizuna handia du eta horrek jende gehiagori zuzenduta egotea laguntzen du. Ondorioz, gure merkatua ez dago guztiz segmentatuta, horregatik esan genezake gure merkatua dibertsifikatuta dagoela.

Esan bezala, gure produktua guztioi dago zuzendua eta gainera kontuan hartzen ditu zeliakoak diren pertsonak zein beganoak eta baita eko produktuak eskaintzen ditugu horrela ahalik eta pertsona gehienek gure produktua kontsumitu ahal izateko.

